

TAO Udatiarrak

OTA Veraneantes

Informazioa

Información

Baliagarritasun epea

Baimena urte bakoitzeko ekainaren 1etik irailaren 30era soilik izango da baliagarria; beraz, eskabidea egiteko epea udaldia baino 15 egun lehenago irekiko da.

Ibilgailu motak

Egoiliarren salbuesenezko araubidea honakoei aplikatuko zaie: autoei, ibilgailu misto egokigarriei, hiru gurpileko ibilgailuei eta kuadrizikloei, baldin eta haien baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-koa edo txikiagoa bada.

Baimenen gehieneko kopurua

Baimen bakarra emango da bizileku bakoitzeko. Udaldirako aparkatzeko baimenik ez zaie emango egoiliarrentzako aparkaleku baimen titularrak bizi diren etxeetan uda igarotzen dutenei eskatzaileei, baldin eta egoiliar horiek agortuta badute aparkaleku baimenen gehieneko kopurua.

Aparkatzeko gehieneko denbora

Gehienez ere 8 astez jarraian aparkatu ahal izango da ibilgailua leku berean. Denbora hori igarota, beste plaza batera mugitu beharko da ibilgailua.

Baldintzak galtzea

Baimena emateko ezinbesteko baldintzak baimenaren indarraldi osoan bete behar dira.

Baldintzaren bat galduz gero, erabiltzaileak horren berri eman behar du.

Udalak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta, horien bidez egiaztatzen badu erabiltzailea behar ez bezala erabiltzen ari dela baimena, berau baliogabetzeko espedientea abiaraziko du.

Tiempo de validez

La autorización será válida únicamente para el periodo comprendido entre el 1 de junio y el 30 de septiembre de cada año, por tanto se abrirá el plazo 15 días antes de la temporada de verano.

Tipo de vehículos

El régimen excepcional para Residentes resulta de aplicación a aquellos vehículos tipo Turismo, vehículos Mixtos Adaptables, vehículos de Tres ruedas y Cuadriciclos cuya Masa Máxima Autorizada sea menor o igual a 3.500 kg.

Número Máximo de autorizaciones

Se concederá una autorización por domicilio. No se concederá autorización para la Temporada Estival a aquellas personas solicitantes que permanezcan durante ese periodo en domicilios de la ciudad donde residan titulares de autorización de aparcamiento para Residentes que hayan agotado el número máximo de autorizaciones de aparcamiento.

Tiempo máximo de estacionamiento

El tiempo máximo de estacionamiento continuado en un mismo espacio es de 8 semanas. Transcurrido ese tiempo, deberá desplazarse el vehículo a otra plaza.

Pérdida de requisitos

Los requisitos exigidos para la concesión de la autorización, deberán cumplirse durante todo el plazo de vigencia de la autorización otorgada.

Si se pierde alguno de los requisitos, se ha de comunicar.

El Ayuntamiento podrá realizar las comprobaciones oportunas y si resultara que se se está realizando un uso indebido de la autorización, se iniciará expediente para la revocación.



Betebeharrak

Requisitos

Donostian etxebizitza

Indarrean den ordenantzaren II. eranskinean jasotako kaleetako batean jabetzan, errentan edo lagata etxebizitza baten erabiltzaile izatea 15 egunez gutxienez.

Ibilgailu baten erabiltzaile izatea:

a) Ibilgailuaren jabea. Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean ibilgailuaren titularra dena izango da haren jabea.

b) Ibilgailu bat leasingean edo errentan hartzen duena, baldin eta ibilgailuaren ohiko gidaria bada.

c) Enpresak lagatako ibilgailua duena, baldin eta ohiko gidaria bada eta enpresaren baimena badu ibilgailua berak bakarrik eta lan-orduetatik kanpo erabiltzeko.

d) Gidabaimenik ez duen pertsona baten ibilgailua erabiltzen duena.

Horrelakoetan, kasu hauetan emango da baimena: jabea eta gidaria bizileku berean bizi badira eta lehen mailako odolkidetasuna badute, senar-emazteak edo izatezko bikotekideak badira, edo gidaria jabearen legezko tutorea edo soldatapeko laguntzailea bada eta ibilgailuaren jabeari laguntzeko eginkizuna badu.

Gidabaimena indarrean

Gidabaimena indarrean edukitzea, Espainian gidatzeko baliozkoa, indarrean dagoen araudiaren arabera.

1 Vivienda en San Sebastián

Disponer en calidad de propietaria, arrendataria o cesionaria, del uso de una vivienda sita en alguna de las calles incluidas en el anexo II de la ordenanza en vigor, por un período igual o superior a 15 días.

2 Ser persona usuaria de un vehículo:

a) La propietaria del vehículo. Se considerará propietaria del vehículo la persona que conste como titular del vehículo en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

b) Quien disponga de un vehículo en leasing o renting, siempre que sea conductora habitual del vehículo.

c) Quien disponga de un vehículo cedido por su empresa, siempre que sea la conductora habitual del vehículo y esté autorizada por la empresa para hacer uso del vehículo en exclusiva y fuera del horario de trabajo.

d) Quien haga uso de un vehículo propiedad de persona que no posea permiso de conducir.

En este supuesto, se concederá la autorización en el caso de que la persona propietaria y la conductora residan en el mismo domicilio y exista entre ellas un parentesco de consanguinidad de primer grado o se trate de cónyuges o parejas de hecho, o la persona conductora sea la tutora legal o persona asalariada con funciones para acompañamiento de la propietaria del vehículo.

3 Permiso de conducir en vigor

Disponer de Permiso de conducir en vigor, válido para conducir en España de acuerdo con la normativa vigente.